

NAZIO BATZORDEAREN AGIRIA EGOERARI
ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZ
2014-II-17

**ANTOLATUZ GERO,
EKINTZA SINDIKALA
EGIN DEZAKEGU**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Erreformak aplikatu ahala ezagutzen ari garen errealtatea latza da, eta mugimendu sindikalaren erreakzio gaitasunari aproba jartzen dio. Gure iritziz, debate hau indar-erlazioari buruzkoa izan da eta hala jarraituko du. Ez dugu lasterbiderik ikusten: antolakuntzaren helburuari kementsu heldu ezean, azkenean sindikalismoa ezdeusa bilakatuko da. Izan ere, erreformak horretarako egin baitira.

Agiri honetan ELAk duela gutxi izan diren gertakari batzuk aztertzen ditu, eta bere estrategiari eutsi egingo dio: batetik, erabat baztertzen du patronalari eta gobernuei babesa ematea hainbat hamarkadatan ezagutu den politikarik gogorrena aplikatzerakoan, bestetik, gure estrategian lehentasuna emango diogu soldaten eta enplegu duinaren aldeko borrokari (eskutik baitoaz); hain zuzen, hau posible egiteko antolakuntza-tresnak indartzea da helburua, lantokiak sindikalizatuz.

1.- ESPAINIAKO CCOO-EN IRITZI ARTIKULUA

Madrilgo CCOOen kabinete juridikoan diharduen abokatu batek eta Lan Zuzenbideko katedradun batek idatzi duten artikulua batean (“CEOek ez du negoziatu nahi”) Espainiako negoziazio kolektiboa aztertzen da. Artikuluaren egileek gai interesgarriak inguruan egiten dute gogoeta. Hauek aipatzen dituzte:

* “Hitzarmenetan gertatzen ari den soldaten devaluazio kezkarria”. Hots, soldatak asko ari dira jaisten. Datu hau estatistika ofizialek berresten dute.

* “Negoiazio kolektiboaren estaldura tasak izan duen jaitsiera izugarria”. Beraz, gero eta langile gutxiago dago hitzarmen kolektiboren baten babespean.

Egileek esaten dute CEOek eta CEPYMEk birritan sinatu dituztela sindikatuarekin “akordioak (...) zeinei gero gobernuaren jardura legegilean ezikusiarrena egin zaien”. Patronalak “baztertu egin ditu, baliogabekotzat jo baititu, eta gogotsu ekin dio erreforma legalaren bideari”. “Halaber, -diote- negoziazio kolektiboan aurrera egiteari uko egin dio, soldaten de-

valuazio orokorra behartzeko (...) eta posizio sindikalak une aurre-demokratikoetaraino atzera arazteko”.

Gero, artikuluan diote “ultraaktibitatearen amaiera epea une bereziki kritikoa izan zen (...) Uda baino lehenago

(2013) UGTk, CCOOek eta patronalak Lanbide-arteak Akordio bat negoziatzea erabaki zuten, zeinetan irauki ziren hitzarmen kolektiboaren edukia luzatzen baitzuten (...) Akordioa ez da gartzatzen ari CEOek hitzarmenaren edukia erabat irauki dela dioen ebazpen judicial bat lortu nahi duelako (...), baita hitzarmenaren bere luzapena jaso bada ere (...)”. Patronalak ez omen du negoziatu nahi

“izan ere, elkarrizketa pribatu batean CEOeko zuzendari tekniko batek esan zuen bezala gaia Auzitegi Gorenako Lan Arloko aretoan irabaztea espero dute, eskubideen kontagailua zeroan jartzeko”. Artikuluaren egileak komatxo artean jartzen du CEOeko arduradun batek esan zuen esaldi bat: “magistratuen botoak lotuta ditugu; bateko aldeaz irabaziko dugu. Erreforma laborala Konstituzionalak onetsiko du, eta ultraaktibitatearen amaiera, Gorenak. Zertarako negoziatu?”. Argi asko hitz egiten du patronalak!

Egileek ondorio bat atera dute hortatik: CEOek “bere interesak langileen ordezkariarekin dituen harremanetatik kanpo defenditzen ditu, legegari eta epaileen erabakiei helduz”. Hots, PPren gobernuaren babesarekin.

Eskertzekoa da akordio horietan parte hartu duen sindikatuak -Espainian bada ere- esatea sinadurak ez duela ezertarako balio, patronala legearekin eta Auzitegi Gorenarekin fidatuta dagoelako. Gauza bat nabarmendu behar da: sindikatu berberak ondorio horiek Euskal Herrian ezkutatu egiten dituzte, eta beren estrategia ezertarako balio ez duten akordioak CONFEBASKekin (CEOE) bertan berregitea da, bide batez ELAri egozten diotelarik patronalarena eta gobernuarena beste inorena ez den erru bat. Hau oso jokabide zitala iruditzen zaigu.

2.- CONFEBASKEN POSIZIOA

Espainian bezalaxe, CONFEBASK ere legearekin eta espainiar auzitegiekin fidatuta dago. Lehiarako bere ereduaren gobernuak oparitzen dizkion erreformen gainean finkatzen du. Hori da bere lehentasunezko l+G+b: legeak etekinak ziurta diezaizkiola eta lanbaldintzak okertu.

CONFEBASKentzat, bestalde, ELA da petxeroa. Patronaleko buruek adierazi dute CCOO eta UGTekin bilatzen dutela tratua, eta LABekin ere egin nahiko lukete. Zein da helburua? CEOek Espainian CCOO eta UGTekin egin duen gauza bera: mugi-

CEOeko arduradun batek esan zuen: “magistratuen botoak lotuta ditugu; bateko aldeaz irabaziko dugu. Erreforma laborala Konstituzionalak onetsiko du, eta ultraaktibitatearen amaiera, Gorenak. Zertarako negoziatu?”

CONFEBASKentzat, ELA da petxeroa. Patronaleko buruek adierazi dute CCOO eta UGTekin bilatzen dutela tratua, eta LABekin ere egin nahiko lukete

“Antolatuz gero, ekintza sindikala egin dezakegu”

mendu sindikala indargabetu, edukirik gabeko akordioak eginez, dena legetik lortzen duen bitartean eta enpresetan soldatak zeharo jaisten dituelarik. Ez du ekintza sindikalik ametzuten, ez du eragozpenik izan nahi. Bada, gure herrian dagoen errealtate sindikal desberdina asmo horretarako oztopo geratzen da.

Patronalak -Nuria Lopez de Gereñuren ahotik, Asociación para el Progreso de la Dirección foroan mintzatu zenean- gehiengoa duen sindikalismoari “moderatzaile eginkizun” bat egozten dio, eta hau ez omen dugu betetzen. Penatuta egiaztatzen du ELAk ez duela kontrol sozialeko funtziorik egiten. Honi dagokionez patronala ez dabil bat ere oker.

CONFEBASK eman zaion ordezkartza batez -enpresen hauteskunderik ez da egiten- abusuz baliatzen da negoziazio kolektiboa eragozteko eta gobernuen aurrean lobby gisa jokatzeko. Diru publiko finantzatutako lobby funtzioa. ELAk sinatu dituen akordio batzuri eman dien erantzun guztiz neurrigabeak adierazten du ordezkartzaren monopolioa obsesioa duela, negoziazio kolektiboan beselako edukirik hitzartu ez dadin eta bere finantziarioa diru publiko bermatzeko.

Badakite eurentzat une aproposa dela. Langabezia maila altuak ezartzen duen diziplina profitatzen dute xantaia egiteko, eta bermatzeko kontratu berriak baldintza negargarrietan egingo direla.

Patronalak helburu hauetarako hedabideetan duen oihartzuna egundokoa da, komunikazio-enpresen informazio tartea ia erabat betetzera (baita EITBn ere). Batez ere enpresa handiek beren helburua, soldaten devaluazioa, hedatzen dute, baina gizarteko debatean ezkutatu egiten da hori aldeztu dutenek kontratu blindatuak dituztela; krisia izan arren soldatak igotzen dizkietela; milioi askotako pentsio pribatuak jasotzen dituztela eta, zenbait kasutan, patronaletako kargua utzitakoan, latsa eragiten duten kalteordainekin joaten direla. Soldaten jaisiera defenditzen dutenak hipokrita eta ziniko hutsak dira.

Patronal honen lehentasuna ez da negoziazio kolektiboa, legea baizik. Horregatik, NMF, ELGE, Europar Batzordea, EBZ eta abarren babesaz gobernuari galdegiten diote beste erreforma laboral bat egin dezala, aurrekoa “motz geratu delako”. Hori da bere helburua; hori, eta mugimendu sindikala distraitzea. Badaki PPK ez diola kale egingo.

3.- EUSKO JAULARITZAK SOLDATEN JAITSIERA BILATZEN DU

Urkulluk behin eta berriz gogoratzen du kontsensuaren balioa; bere politikak babesteko kontsen-

tsua, alegia. Bere gobernuak adostasun hori lortu du patronalarekin eta alderdi politiko handiekin. Esaterako, bat datoz hainbat puntutan: “elkarrizketa sozialean sakondu” beharra, ELA “maximalista” dela esatean, “enpresa kudeatzeko eredu berri bat” gauzatzeko helburuan (non lehentasuna den edozein eskubide produktibitatearen eta lehiakortasunaren menpe jartzea), “klase-borrokan oinarritutako eredu akituta” dagoelako ondorioan, eta ELAren jarrera “ezetz esateagatik ezezkoan” dagoela. Honi erantsi beharko litzaioke sarri errepikatu den legenda faltsu hori, “ELA inorekin ez da biltzen” dioena.

Goazen puntuok aztertzeraz. “Elkarrizketa soziala” deitu al diezaiokegu azken berrogei urteetako politikarik unilaterial eta antisozialenari? Ez, noski. Elkarrizketa sozialeko mahaiek bi funtzio dituzte, eta ELAk ez bata ez bestea ez du onartzen: sindikatu eta patronalak finantzatzen laguntzea, batetik, eta patronalei eta gobernuari ezartzen dituzten politikan babesa ematea, bestetik.

Maximalista izatea al da langabezia eta desberdintasun soziala areagotzen duten politika salatzea, eta alternatibak plazaratzea? Litekeena da boterearentzat gogai-karri izatea, baina hori ez da maximalismoa. Maximalista izatea ote da, esaterako, zerga-politikaren opazitatea amai dadila eta bertoko presio fiskala batez besteko maila europarrarekin parekatzeko eskatzea?

Enpresa eredu berri bat? Lehenik argitu behar da EAEk ez daukala lan-arloko legegintza ahalmenik. Patronalak eta gobernuak aipatzen duten eredu berriaren abiapuntua espainiar legediaren goitik behar-rako onarpena da. Eredu horren oinarri faltsua da patronalak sortzen duela enplegua; hau aitzakia gisa erabili nahi dute eskubide laboral eta sozialak suntsitzeko. Horixe da eurei zergak jaisteko eta erreforma laboralak zurrizko erabili ohi den argudioa... Eredu horretan oreka guztiak hausten dira; ez dago lerro gorririk. Proposamen honen eredu sozialak, erretorika eta propaganda alde batera utzita, aurre-demokratikoak dira; xede bakarra langile-klasearen defentsa kolektiboa ahultzea da, eta bermatzea enpresarioen erabakiak aldebakarrekoak izango direla.

Gobernuak dio klase-borrokan oinarritutako gizarte-ereduarenak egin duela. Ez, bada. Klase-borroka puri purian dago. Warren Buffett, munduko gizonik aberatsenetako batek, esan zuen “klase-borroka badago, eta geu ari gara irabazten”. Eskertu behar zaio dirudun honi kapitalaren ofentsiba defi-

Maximalista izatea al da langabezia eta desberdintasun soziala areagotzen duten politika salatzea, eta alternatibak plazaratzea?

Gobernuak ELAri egindako kritikak bidegabeak eta gehiegizkoak dira

BASKek Lehendakariari Lanbidearteko Akordioa sinatzea ukatu zionean, patronalari ez zioten kritikarik egin. Bankuak -baita Kutxabank ere- Administrazioen zor publikoarekin espekulatzan dabiltzanean -hor dute beren pagotxa- eta gobernuak horiei interesak ordaintzeko murrizketak ezartzen ditueanean, ez da kritikarik entzuten... Honek ez du etenik.

Jaurlaritzak inaplikazioari buruzko batzordea, ORPRICCE, sortu du, eta hau arautzerakoan bermatu egin dio patronalari derrigorrezko arbitrajearen aukera, zeinak ahalbidetzen baitu sinatutako hitzarmenak ez aplikatzea. Organo hau sortuta erreforma laboralari zinezko mugak ezartzeko parada galdu dute. Legebiltzarrak erreforma laboralaren aurka balio juridikorik gabeko ebazpen bat bozkatu zuen, baina Jaurlaritzak erreformaren ildoari zintzo jarraitzen dio.

Gobernuarentzat hau guztia normala da. Alde batera uzten du neurriak zein latzak diren; arlo sozial eta laborala txikitzen ari direla; diru-kutxa publikoetan gertatzen ari den harrapaketa; inpunitatea zenbaterainokoa den; finantza-botereen tirania; kapitalaren aginduei men egiten zaienean gobernu aldaketak hutsalak direla... Hori dena ahaztu eta kritika bakarra ELAri egiten diote.

Arestian esan dugun bezala, gobernuak agerian uzten du kontsentsua dagoela, eta hor bat datoz alderdi handiak (benetako zoritxarra) eta patronala, batez ere enpresa handiak. Erabaki dute kontsentsu hori ez dela zalantzan jarriko, eta baten bat horretara ausartuz gero, estigmatizatu egingo dutela; izugarrizko intolerantzia dute, eta kontrolpean dituzten

hedabideak abusuz erabiltzen dituzte. Men egiten ez duen oro nabarmen utzi nahi dute, kontsentsu hartara mugimendu sindikala ere biltzea nahi dutelako. Gobernuak ELAri egindako kritikak bidegabeak eta gehiegizkoak dira.

Jaurlaritzak arazorik ez duten enpresetan ere soldatak jaistea nahi du

Noski, garaiak aldatu dira. Duela urte batzuk gobernuak nolabait erdibideko puntuan kokatzen ziren patronalaren eta langile-klasearen artean. Gaur, zorritxarrez, ez da hala gertatzen. Gobernuaren diskurtsoa norabide bakarrekoa da. Hau ez da, pentsa arazi nahi duten moduan, patronalaren eta sindika-

tuon arteko borroka bat, erdian gobernuak geratu delarik. Ez, bi baten kontra ari dira, Jaurlaritzak CONFEBASKen aldean ari baita lehian. Soldaten jaitsiera CONFEBASKek eta gobernuak nahi dute; areago, Enplegu sailburua den Aburto jaunak esan du, baita "ondo doazen enpresetan" ere. Hala da: Jaurlaritzak arazorik ez duten enpresetan ere soldatak jaistea nahi du.

Soldata jaitsieraren defentsa argi asko islatu du Jaurlaritzak negoziazio kolektiboa deuseztatzeko bere erabakiarekin, arlo publikoan eta, zeharka, itunpeko zein azpikontratatuak esparruetan. Arloetan ordainsariek egundoko murrizketa jasan dute, Zapateroren eta Rajoyren erabaki berberak aplikatuta, nahiz bere borondatez beste batzuk ezarrita. Ez da sinesgarria bere ardurapean dauden esparruetan negoziazio kolektiboa txikituta utzi duena arlo pribatuan bitartekari gisa agertu nahi izatea.

ELAk horren politika desorekatuari ez dio inongo babesik emango.

4.- CCOO-EK eta UGT-k ESPAINIAN PORROT EGIN DUENA APLIKATU NAHI DUTE EUSKAL HERRIAN

Begibistakoa da gobernuak, patronalak eta alderdi politiko gehienek mugimendu sindikala ere kontsentsu neoliberalaren altzora bildu nahi dutela. Helburu hori iristeko, ordea, ELA oztopo da.

Zergatik da Espainian langabezia handiagoa, Hego Euskal Herriko soldatak altuagoak izanik? Zer dela eta jausten dira soldatak areago Nafarroan, non hitzarmen sektorialak CCOOekin eta UGTekin sinatu diren? Zergatik aipatzen da negoziazio kolektiboa "aterki babeslea" eta "lurzoruen" kontua, erreformek erabat zulatuta utzi duenean eta aipatutako eraginak dituenen?

CCOOen eta UGTren jarrera ulergarria da beren ahuleziak ezagututa, esparru estrategikoan, antolakuntzan zein finantzei dagokienez. Sindikalismotik elkarrizketa sozialeko mahaia eskatzen dituen benetan finantziarioa ari da erregutzen. Eredu sindikal hau, izan ere, oso kateatuta baitago.

CCOOek eta UGTk (baita LABek ere) ELAri leporatzen diote "sektoreak baztertu dituela", baina sektore jakin batzutan benetako ekintza sindikala dagoenean (indar-erlazioa aldekoa delarik) eurak ez

Sindikalismotik elkarrizketa sozialeko mahaia eskatzen dituen benetan finantziarioa ari da erregutzen

Ekintza sindikalik ez dagoenean patronalak nahi duena sinatzen da

dira borrokatzen. Halaxe gertatzen da Bizkaiko eta Gipuzkoako Egoitzetan (hiruretatik bat ere ez da egon), Gipuzkoako garbitasun sektorean (CCOO ez dago)... Hauek guztiak adibide sektorialak dira.

Hitzarmenak indar-erlazio egokirik eta ekintza sindikalik gabe sinatzen direnean atzerakada laborala gauza jakina da: Soldata galera, lanaldi luzeagoa, malgutasun handiagoa, erreformaren aplikazio betea, hitzarmenean bertan jasotako ultraaktibitatearen amaiera... Ekintza sindikalik ez dagoenean patronalak nahi duena sinatzen da. Hona hemen patronala sinatzeko prest dagoen hitzarmenetako batzuk:

- **BIZKAIKO GARBITASUNA.** Iraupena: 2010-14, bi urterako soldata izoztuak, eta %0,8 eta %1eko igoera beste bietan. Lehenago zegoen mugagabeko ultraaktibitatea 24 hilabetera murriztuko da. Sinatzaileak: CCOO, UGT eta ESK.
- **BIZKAIKO ELIKAGAIEN MERKATARITZA.** Iraupena: 2010-14. Soldatak hiru urtez izoztuta, %2ko igoera 2013an, eta KPlaren %85 2014an. Ultraaktibitatea: 18 hilabete. Sinatzaileak: CCOO, UGT eta LAB. Sektore honetako enpresak dituzten etekin handiak ez dira inondik ere kontutan izan.
- **BIZKAIKO OKINDEGIAK.** Iraupena: 2010-15. Soldatak izoztuta, plus murriztuak, lanaldi luzeagoa eta malgutasun handiagoa. Ultraaktibitatea: 18 hilabete. Sinatzaileak: CCOO eta UGT.
- **BIZKAIKO GOZOTEGIAK:** Iraupena: 2010-15. Soldatak 4 urtez izoztuta, %1,5 eta %1,5eko igoera. Malgutasun handiagoa eta lanaldi luzeagoa. Ultraaktibitatea: 15 hilabete.
- **ARABAKO ELIKAGAIEN MERKATARITZA.** Iraupena: 2010-14. Soldata izoztuak eta %0,7ko igoera. Mugagabeko ultraaktibitatearen ordez, 18 hilabetera mugatua.
- **BIZKAIKO ERAIKUNTZA.** Iraupena: 2012-2016. Mugagabeko ultraaktibitatea ezabatu dute. Urteko gutxieneko lanaldia ezartzen da.

5.- LANBIDEARTEKO AKORDIOA ETA BESTE ERREFORMA LABORAL BAT

Bi urtean hirugarren aldiz Lanbidearteko Akordio bat aipatzen ari dira. Duela gutxi proposatu dute CCOOek, UGTk eta CONFEBASKek.

Beste erreforma laboral baten hipotesia ere mahai gainean dela luzatu dute proposamena. Lanbidearteko Akordioak helburu bihurtzea agerian uzten du sindikatuok ez direla azken aldiko gertakarietatik ikasteko gauza izan. Beren helburua da Euskal Herrira ekartzea Espainian porrot egin duen akordio eredu bera. Finean, CCOO eta UGT itun sozial bat ari dira eskaintzen patronalari eta gobernuari.

ELAk berretsi egiten du bere posizioa: Patronalarekin esparru horietan ez dago zer eginik legediak eta gobernuek nahi duten guztia ematen dioten artean, edota patronalak –goian aipatutako CCOOeko abokatuak eta katedradunak dioten moduan– “bere interesak langileen ordezkariekin dituen harremantatik kanpo” defenditzen dituen artean, “legeari eta epaileen erabakiei helduz”.

2013ko uztailaren 5ean Lanbidearteko Akordioa egiteko saioa lehertu zenean ELAk esan zuen mugimendu sindikalak ezin duela irudikatu ez dagoen moduko patronalik. Gaur ere gauza bera irizten diogu.

CCOOek eta UGTk bide horri eutsi nahia ezin da edukien ondorio izan.

6.- ELA-REN POSIZIOA

Soldataren defentsa funtsezko atala da guk proposatzen dugun krisiko irtenbidearen alternatibaren baitan; betiere gogoan baitauekaguz gizarteko desberdintasunak ez direla itxuragabe areagotu behar. Soldata ez da ordainsari hutsa; enplegua ere bada, jarduera ekonomikoa bultzatzen duelako; pentsioak ere bada, hauek kotizazioekin finantzatzen direlako: soldatak jaitziz gero, kotizazioak eta pentsioak murriztuko dira; halaber, zergen bidetik hezkuntza eta osasungintza publikoa ere bada. Soldaten alde jardutea bidezkoa da, baina gainera baliagarria da ere ekonomia erreala ekonomia espekulatiboaren-gandik babesteko. Krisi honen jatorrian dago desberdintasunen areagotzea; soldatak jaistea nahi dutenek desberdintasun hori handitu nahi dute.

ELA lanean ari da posizio sindikal hau negoziazio-mahaietara eramanean eta patronalak inposatutakoa ez den negoziazio kolektibo bat gara dadin.

Beren helburua da Euskal Herrira ekartzea Espainian porrot egin duen akordio eredu bera

Sindikalismoak ezin du enpresa esparrua baztertu eta enpresarioaren nahierara utzi

Zenbait esparrutan lortzen ari gara, eta honek balio handia du.

Esanak esan, ELAk inoiz ez ditu sektoreak baztertu. ELAk beste zerbait adierazi du (eta horri eusten dio): azken erreformak, izan den gogorrenak, ezarri zuen enpresan negoziatutakoaren aplikazioa lehenetsi egingo zaiola sektore mailakoari (hau aurrerantzean ez delarik izango derrigor bete beharreko gutxienezkoa); hots, erreformak hitzarmen sektorialeki indarra kendu zien. Enpresako negocia-

zioaren lehentasuna soldaten devaluazioa errazteko ezarri zen; ondo azaldu zuen zergatia FEDEA Fundazioak, zeinak PPren gobernuari gomendatu zion erabaki hori hartzeko "enpresetan sindikatuak ez baitaude". Erreformak, gainera, Lan-Baldintzen Funtsezko Aldaketa bidez soldatak murriz-

Gure autonomia sindikalak egundoko garrantzia du egoera honetan

ELAK SINATU DITUEN SEKTOREEN KOADROA »

HITZARMENA CONVENIO	HERRIALDEA TERRITORIO	IRAUPENA VIGENCIA	EDUKIAK CONTENIDOS	SINATZAILEAK FIRMANTES	PATRONALA PATRONAL
Papergintza	Gipuzkoa	2012-2014	* Soldata: KPI urtero. * Ultraaktibitatea: 36 hilabete * Inplikazioa: derrigorrezko arbitrajetik ez	ELA-LAB-CCOO-UGT	ADEGI
Gasolindegia	Bizkaia	2011-2014	* Soldata: 2011: KPIren %75. 2012: KPIren %85. 2012-14: KPIren %90 * Ultraaktibitatea: 18 meses * Inplikazioa: derrigorrezko arbitrajetik ez	ELA-LAB-CCOO-UGT	ADEGI
Gasolindegia	Gipuzkoa	2012-2015	* Soldata: 2010-2011: KPIren %85. 2012-14: KPI * Ultraaktibitatea: 24 hilabete * Inplikazioa: derrigorrezko arbitrajetik ez	ELA-LAB-UGT-CCOO	AEGA
Kale-garbitasuna	Gipuzkoa	2012-2015	* Soldata: %2,%2,4,KPI,KPI * Ultraaktibitatea: 6 urte * Inplikazioa: derrigorrezko arbitrajetik ez	ELA-LAB	FCC-CESPA-ZERBITZU ELKARTEA
Bidaiarien garraioa	Gipuzkoa	2009-2014	* Soldata: KPI urtero. * Ultraaktibitatea: 3 urte * Inplikazioa: derrigorrezko arbitrajetik ez	ELA-LAB-CCOO-UGT	AVITRANS
Transitarios	Gipuzkoa	2009-2014	* Soldata: 2013: %2,6; 2014: KPI * Ultraaktibitatea: 36 hilabete * Inplikazioa: klausula	ELA-LAB-CCOO	ATEIA
Ehunen merkataritza	Bizkaia	2009-2013	* Soldata: 2009: %1,4, %0,8, %2, %2, %1,5 * Ultraaktibitatea: mugagabea * Inplikazioa: klausula, langileekiko akordioa	ELA	BIZKAIDENDAK
Eskola-garraioa	EAE	2009-2016	* Soldata: %98,56erainoko ekiparazioa * Ultraaktibitatea: mugagabea * Inplikazioa: aldean arteko akordioa	ELA-LAB-CCOO-UGT	ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZAILEEN ZERBITZUA ESLEITU ZAIEN ENPRESAK

teko aukera ematen zuen; bitarteko hau askoz errazago erabil liteke hitzarmen kolektibo baten ordean enpresa-itun bat badago indarrean. Halaber, erreformak patronalari hitzarmenen iraunaldiaren amaiera oparitu zion (ultraaktibitatea kenduta), negoziazio kolektiboan beherantzko presioa eragiteko, negoziazio sindikal gaitasuna langabeziak zeharo baldintzatzeko duen uneotan Damoklesen ezpata moduko bat eskegi baitzen horrela. Erreformak ere zentralizatzeko tresnak zekartzan, euskal esparruan negoziatutakoak baino askoz hitzarmen okerragoak aplikatzearen.

Erreforma aztertuta, ELA ondorio batera iritsi zen: ahal den enpresa guztietan lan sindikala indartu beharra dago, enpresa-hitzarmenak lortzeko. Sindikalismoak ezin du enpresa esparrua baztertu eta enpresarioaren nahierara utzi, hots, ezin diogu FEDE-Ari arrazoia eman. Erabaki hori -enpresetako sindikalizazioa lantzea- ELArentzat ez da unean-uneko erabakia. Enpresa, ahal den toki guztietan, ekintza sindikaleko esparru efektiboa izan behar da, eta erreformak argi utzi du esparru horretan jokatu direla benetan aplikatzen zaizkigun lan-baldintzak: izan daitzeko presentzia sindikalari esker negoziatuak ala ugazabak aldebakarreko erabakiz ezarriak.

Hori argituta, ELAk sektore batzutan ez du sinatu eta beste batzutan bai. Ez sinatzeko erabakia hartzeko arrazoiak: ez genuen soldata jaitziera ontzat eman nahi, ezta lanaldi luzeagoa ere, edota ez genion uko egin nahi hitzartuta zegoen ultraaktibitateari, etab. Gainera, maiz bakarrik, ELAk hitzarmenak negoziatzeari ekin dio halakorik orain arte ez zegoen enpresa askotan (300dik gora); hortan dihardugu orain ere.

ELAk sinatu dituen hitzarmenek ezaugarri bereziak dituzte: ez dago atzerapausorik; erreferentzia KPI da; erreformaren aurkako klausulak; lege ezarritako dagoen gutxienezko epetik gorako ultraaktibitatea (zenbait kasutan mugagabea)... Sinatutako 8 kasutatik, 4 Gipuzkoan izan dira.

7.- GAKOA, AUTONOMIA SINDIKALA

ELAk bere autonomia aldarrikatzen du politika publikoak juzkatzeko, alternatibak plazaratzeko edota politikak aldatzeko borroka egiteko (bakarrik nahiz aliantzak eginez). Ezinezkoa da, gure ustez, erakunde desberdinen posizioak ulertzea autonomiaren osagaia aintzat hartzen ez bada. Autonomia sindikala beti izan da garrantzitsua, baina gaur, kapitalak ia klase politiko guztia menpean duela, funtsezko bilakatu da.

Politika publikoen kritika egiterakoan zein misterio dago Rajoy, Lopez, Urkullu edo Barcinaren politika antisozialen aurkako jarreraren, edozein dela ere agin-

tean dagoena? Zer misterio dago Bilduk bankarizazioari eman zion babesari edota Gipuzkoako fiskalitateari kargu hartzeko posizioan? Oso erraza da: autonomia sindikala, zeinen bermea afiliazioa baita.

Negoizazio kolektiboaren arloan, zer misterio dago gure sindikalismoa gauzatzea ahalbidetzen duten lantaldeetan, Eskola-Garraioan, Egoitzetan, hainbat enpresatan (Perot, Marie Brizard, Laminaciones Arregui, Corrugados, Fundiciones TS eta beste hainbat)? Ez dago misteriorik, ez bada balio batzuekiko gure militanteen konpromisoa eta sindikatuak militante hauei antolakuntzari dagokionez ematen dien lehentasuna.

Horregatik, ELAk ahal duen guztietan esaten du sindikatu batentzat ez dagoela bere autonomia bermatzen duen afiliazioa baino gauza politikoago eta inportanteagorik. Diru publikoz lagundutako edo enpresek babestutako proiektu oro hein handian kateatuta dago. Hori agerian geratzen da politikan, sindikalismoan, komunikazio enpresetan...

Antolatutako afiliazioak sindikatuaren eginkizuna optimizatzeko baldintza hobek eskaintzen ditu. Hori patronalak ondo daki. Eta sindikatu edozein egoeratan optimizatzen du: EEE bat, hitzarmenaren negoziazioa... Afiliazioak bermatu egiten du botere ekonomiko eta politikoarekiko autonomia. Autonomiarik gabe -afiliaziorik gabe- sindikalismoak halabarrez “elkarrizketa sozial” deitu behar dio inoiz jasan dugun politikariek antisozialenari. Horixe gertatzen zaie CCOOi eta UGTri.

Horregatik iruditzen zaigu zentzugabea beste sindikatu batzuk ELAri aurpegira botatzea afiliazioaz kezkatzen dela. Kritika horiek diru publikoz finantzatzeko diren erakunde sindikal eta politikoetatik datozenean, zentzugabekeriari posizio zeharo antisindikala gehitzen zaio.

Autonomia sindikalak, bestalde, beste inoren menpe egon beharrik gabe aukera ematen du erreforma horiek sindikalismoari ezartzen dizkion etxekolan organizatiboei ekiteko. ELAk mugimendu sindikaleko kideei dei egiten die hala egin dezaten. Ezinbestekoa baita. Gaurko abaguneak irakaspen bat utzi digu: botereak soilik antolatuta dagoena errespetatzen du.

Ez dago bere autonomia bermatzen duen afiliazioa baino gauza politikoago eta inportanteagorik

ELA
EUSKAL SINDIKATUA